



OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2020ko URTARRILAREN 24ko BILERAREN AKTA

Presidenteak deituta, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren egoitzan, 2020ko urtarrilaren 24an, 11:30ean, eta honako hauek dira bertaratutakoak eta gai zerrenda:

DEITUAK

PRESIDENTEA

Miren Nekane Murga Eizagahevarria andrea

PRESIDENTEORDEA

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

KONTSEILUKIDEAK

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Hernando Lacalle Edeso jauna
Fátima Ansotegui Elordi andrea

IDAZKARIA

Ibon Etxeberria Olañeta jauna

Era berean, Juan Luis Diego Casals jauna, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren zuzendari nagusia etorri da Kontseiluaren bilerara, presidenteak gonbidatuta.

1. Administrazio Kontseiluaren aurreko bileratik aztertzeke geratutako dokumentazioa aztertzea

Presidenteak hasiera eman dio Administrazio Kontseiluaren bilera honi aste honetan egindako lanak azalduz; urtarrilaren 20ko saioan (astelehena) eskatu ziren.

Txostenaren I. eranskineko edukia Deloitte-aren balizko egiletzakoa izatearen aurrean, zuzendari nagusiak azaldu du lantaldeak txostenaren eduki guztia bere gain hartzen duela, eranskinak barne.



Administrazio Kontseiluaren aurreko bileran txostenaren inguruan eskatutako argibideak entregatu dituzte erakundeko zerbitzu juridikoek. Bigarren txosten hori ere ez da argigarria, kontseiluaren iritzian.

Kontseilu honentzat ezinbestekoa da gaia ebatziko duen balorazio juridikoa izatea, iritzi juridiko zalantza izpirik gabekoa emango duena Kontseiluko kideek irizpide tinko eta argudiatua izan dezaten gertatutakoaren inguruan. Administrazio Kontseiluaren aurreko saioretan ikusi denez, zaila da material suntsikorren kontsumoan gutxieneko trazabilitatea lortzea; hortaz, behin eta berriz nabarmendutako premisa da AUOko sukaldeetan ustez gertatutako irregulartasunei buruzko txosten zorrotz, sakon eta behin betikoa aurkeztu behar duela erakundearen Zuzendaritza Nagusiak Kontseilu honetan.

Horretarako, Zuzendaritza Nagusiari eskaera egitea erabaki da, *Forensic* motako txosten bat eska dezan, AUOn 2012-2019 aldian kontsumitutako material suntsikorrei buruzkoa, tarte horretako kontratu guztiak aztertuz.

Zuzendaritza Nagusiari eskatu eta agintzen zaio sektoreko enpresen artean beharrezkoak diren eskaerak egin ditzan, eskaintzak jaso ditzan eta horien balorazioaren berri eman diezaion Kontseilu honi.

2. **Galde-eskeak:**

Ez da inolako galdera edo eskaerarik egin.

Beste gairik ez dagoenez, bilera 13:45ean bukatu da.



**Sin.: IBON ETXEBERRIA OLAÑETA
IDAZKARIA**



**Sin.: MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHEVARRIA
PRESIDENTEA**